

da lin

2024. abendua

266 zk.



**Natura eta zaintzatik,
kolektibo eta
burujabetzara
Aiora Urbietarekin**

elkar



675 965 116 iraopottoka@gmail.com



Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org



Tel. 943 851 868
e-posta: lintsantaclara@hotmail.com



erdikalea 3
tel. 943 147 196



Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
07:30-13:30, 16:30-21:00
Larunbat eta igandetan
07:30-14:30, 17:00-21:00

tel. 943 536 314



943 147 657



Gestoria Zubia

M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070



Zestoa
AUTOESKOLA


Gesalaga 1 Tel. 943 148 524
20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa_autoeskola@hotmail.com

Tel.: 943 14 73 44




URRIA									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
31									

ABENDUA									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
31									



Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)



ABOKATUA GESTORIA
KONTABILITATEAK ZERGAK
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGUURUAK

Gesalaga kalea, 22 behea 20740 ZESTOA
Tel./Fax.: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com



Olaizola eta Uria kalea - Iraeta
943 147 067



GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK
KARABANA, AUTOKARABANA eta FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta MANTENTZE LANAK
telf. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net



Gestoria Zubia
M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070

Portale Kalea 7,
20740 Zestoa
tel. 943 147 088



kutxabank



kutxi eta pentsuak
www.laiakdenda.com
tfnor: 943148134
laiak.
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean.



640 917 626



TXOKO TXIKI
Okindegia eta taberna
943 052 761



ZESTOA
Kale Okerra 3
Tel. 943 14 72 69

Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l
Itzulpenak baino askoz gehiago!

Bakun

Narkis Balentziaga, 2 T+34 943 148 306 bakun@bakun.eus
20749 Arroa (Gipuzkoa) F+34 943 897 380 www.bakun.eus



UROLA
ITURGINTZA
665 49 07 73



foru plaza, 4
tel. 943 147 095



Aranburu
Landetxea eta jatetxea
943 148 005

Urtea BUKATU aurretik DURANGORA

2024. urteak bere azken egunak bizi ditu eta urte berria hasi aurretik euskaldunok zenbait erritu bete behar izaten ditugu. Gabonetako bazkari edo afariekin bete aurretik, abendua hasieran, Durango-Azoka dugu. Aurtengoa 59. edizioa izan da eta urte guzti hauen ondoren euskaldun guztiok daki-gu abenduan negua hasten dela, Gabonak eta Urtezaharra izango direla eta Durangoko Azokak bere atek irekiko dituela Landakon. Euskalduntasunaren erritu inizatiko moduan ulertu dezake norbaitek Durangora joatea. Eta posible da arrazoi izatea, baina hori baino gehiago dela ere esan beharra dago. Euskararen etorkizuna beltza ikusten zen garai batean, azoka antolatzen hastea gure jatorriarekin bat egitea balitz bezala ulertu genezakeen eta baita ondare hori gure ondorengoei helarazteko bide bat bezala ere.

Azken urteetan ohi den moduan, jende ugari gerturatu da aurtengoa ere Durangora eta zestoarrak ere bertan izan ditugu. Amancay Gaztañaga, Ezpalak, Pako Aristi, Nerea Mendizabal, Garikoitz Mendizabal edo Aiora Urbietak, besteak beste, bertan izan dira beraien azken lanak erakusten. Hari horri tiraka, Aiora Urbietak ekarri dugu gurera abenduko zenbaki honetan. Sendabelar eta abarren inguruan plazaratu berri duen liburua aurkeztu zuen Durangoko Azokan. Duela urte batzuk sendabelarren mundua ez zela baloratzen dio Aiorak. Horretan arrazoi duela onartu beharra dago. Batzuen uste edo esanetan, sineskerian oinarritzen den zerbait balitz bezala ikusi da sendabelarren mundua urte askoan, baina oinarri empirikoa duela ezin dugu ukatu. Egunerokoan ditugun gaitz edo gaixotasun guztiak sendatzeko ez dute balioko agian, baina belaunaldiz belaunaldi gizakiak sendabelarrak bakarrik izan zituen eta aurrera irtetea lortu zuen. Hainbat kasutan erabilgarriak eta eraginkorrak direla ezin da ukatu. Zergatik ez baliatu aukera guztiez? "Geure gorputzean eta etxean burujabe" liburuan, etxerako garbiketa produktuak egiten erakutsiko digu Urbietak, besteak beste. Aitortuko dizazue, gure etxeetan garbiketa poto pila izaten dugula, hauek gutxitzea ere ez da erronka makala. Ez dut urtea bukatu nahi 2025an Danbolinek 25. urteurrena beteko duela esan gabe. Batzuetan gozagoa beste batzuetan baino, baina denok elkarrekin egin dugun bidea. Hurrengo urteetan Danbolinekin zer gertatuko den asmatzea ez da erraza, baina denok elkarrekin egin dugun bideak guztion babesa eta jarraipena izango duela zalantzarik ez dut. Datorren udazkenean beteko diren 25 urteen festa antolatzen hasi beharko dugu, ezta?

P.D. Ondo bukatu dezazuela urtea!

urte canjea



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitarabazlea: DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR EGKEA. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOIA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

Danbolin: NAIRA EXPOSITO, AMAIUR ARISTI, URKO CANSECO, SARA MASCUCANI, PERU GARCIA, JONE BERGARA, ITSASO WALIÑO ETA OHIANA CALPARSORO

Kolaborabazle/argitarabazle taldea: NAGORE TELLERIA, JON ARGANO, FERNANDO ARZALLUS, ONINTZA IRURETA, MIREIA ORBEGOZO, EIDER ARRIZABALAGA, MAIDER ARREGI, NEREA ODRIOZOLA, ITSASO ZUBIRIA ETA MIKEL IRURE

Disinua eta makabazlea:

ENEKO ARISTI

Inprimabegia: GERTU (OÑATI).

Lege gordailua: SS-1108/2000

ISSN: 1576-9429



PARIS, BERLIN

Nola edo hala lortuko dizut Balenciagako soineko bat alfonbra gorrirako, Ima. Nire kontu! Hasi naiz konturatzen bizitza motza dela, eta geroz eta azkarrago pasatzen dela. Gainera, denbora gehiena lanean pasa behar dugu, eta, nahiz eta nik nire lana gustuko dudan, obligazioek ez didate emozio ikaragarriarik sortzen. Horregatik, sarritan pentsatzen dut hemendik aurrera ondo eman behar ditudala pauso guztiak etorkizunean denbora preziatu hori ez diezadaten guztiz lapurtu. Lantokian ezaguna naiz goizero umore onez azaltzeagatik eta trebezia berezia omen dut jendearen petralkeriak baretzeko. Lankideek uste dute berezkoa dudala dohain hori, natural aterako balitzait bezala, baina esfortzu hori egiteak on egiten dit.



Hegazkin batetik ari naiz idazten enbido hau, Berlinera iristeko ordu erdi bat falta zaigu, eta urteak dira hain

hegaldi txarrik izan ez dudala. Dena den, betidanik gustatu izan zaizkit hegazkinak; eleganteak dira (kanpotik) eta gustuko ditudan lekuekin konektatzen naute, etxearekin adibidez. Badakit egunen batean Euskal Herrira itzuli nahiko dudala eta ez dut uste nire lanbidean aukera askorik izan dezakedanik bertan. Hori da nire gaurko buruhaustea. Gainera, Paris ez da lana bakarrik; baina badakit Paris uzteak sor diezadaken hutsunea familiak eta lagunek bete dezaketela.

Ikusi berri duzun arte erakusketan, lagunekin elkartzen zaren tabernan dagoen margolanean, lankide baten estiloan inspiratuz zure identitatea askeago eraiki dezakezu Parisen. Norberak bere identitatea topatzea errazagoa izan daiteke hiri handietan, erreferentzia estetiko asko ikusten dira eta. Balenciagan lan eginda norbaitek pentsa lezake modan lan egiten dugunok garela industria honen lehen biktimak, baino guztiz okerra da pentsamendu hori. Zalantza izpirik gabe esango dizuet: ez dago gu baino gutxiago inporta zaionik zein den jantziaren marka edo estilo hori tendentzia den ala ez. Inporta zaiguna da ispiluan begiratu eta gu geu ikustea.

Aitana, Imak soinekoa behar duen momentuan Balenciagan ez banago, utziko al diozu zuk armairuan estreinatuta gabe dituzun soineko horietakoren bat? Beti esaten didazu alfonbra gorrirako direla eta zuk horrelako ekitaldirik ez duzula. Badakit Bergaran pozez zorutzen zaudela lanean, agian Paristik hara joan ninteke. Bertan

enbidoa

pintada. Gerraren eta faxismoaren aurka, gazte langileok lehen lerrora!

Mundu mailako gizarte kapitalistak bi arazo larri ditu: gerraren mehatxua eta faxismo berriaren gorakada eta bi arazo hauek Euskal Herrian ere eragin egiten dute. GKStik horiei aurre egiteko beharra aldarrikatzen dugu, eta horregatik, urtarrilaren 25ean manifestazioak egingo ditugu Bilbon eta Iruñean "Gerraren eta faxismoaren aurka, gazte langileok lehen lerrora" lemapean, gazteria mobilizatzerara deituz.

Agenda belizistak oligarkia atlantistaren hegemonia bermatzen du, langileen bizitza arriskuan jarriz eta eskubide sozialak murriztuz. Aldi berean, faxismoa indartzen ari da sare sozialetan, eskuin muturreko alderdi eta kale-taldeen bidez, langile klasearen eta kolektibo zaurgarrien aurkako gorrotoa sustatuta.

Egoera Euskal Herrian ere nabaria da. Horregatik, gazteok faxismoaren aurka borrokatzeko lehen lerroan egon behar dugu.

Urtarrilaren 25ean, Bilbon eta Iruñean, denok kalera!

gestoak GKSt

FALTAN

Gabon giro honetan normalean baino sentiberago egon ohi gara, eta urtean zehar gogoan baditugu ere, bereziki botatzen ditugu faltan alboan ez ditugunak. Nik, aurten ere, Izeba Mariaxun botako dut faltan. 2022ari ongietorria eman orduko hil zen. Ga-

bonak igaro berritan, azken bi aste haietan sarritan egon ginen elkarrekin, eta agian horregatik, Gabonak usaindu orduko sentitzen dut bere falta.

Gure familia kantuzalea izan da, inondik inora, eta are gehiago gabon ospakizunetan. Aittitta Agustinek zuzentzen zuen Gabon abesbatzan abestu ondoren etxeratzten ginen oraindik baserritar arropak erantzi gabe.

Gabon gauerako tradizio bat dugu betidanik familian: gaueko hamabietan "Mesias sarritan" abesten dugu eskuekin mahaia organoaren erritmora kolpatuz.

Aittitta Agustin hil zenean, ordea, tradizio hura galtzekotan egon ginen. Urte hartan ez zen "Mesiasik" abesteko indarririk etxean. Eta hor altxa zen Izeba Mariaxun, hama biak jo orduko guztiok zuzentzen. Inprobisatutako "Mesias" hartan laguntza musikala faltan, izebak hartu zuen "organoaren soloa" ordezkatzeko ardura: "piribiribi pi, piribiribi pi, piribiribi pi, piribiribi pi..." Hura barre algar! Ez zait ahaztuko Amama Xoleren haserrea begietan, tradizioari burla egiten geniolakoan. Nire ustetan, berriz, etxe-ko usadioari egin zekiokkeen omenaldirik ederrena izan zen. Horixe baita tradizioak berritzearen gakoa: egoerara egokitzen jakitea. Momentu nostalgikoa umorez busti eta ohiturari eutsi ahal izan genion. Orduetik, urtez urte, "Mesiasik" ez zen falta izan, Izebaren "solo" eta guzti. Sinestun ez direnak ere kantuan jartzea lortu zuen ekintza soil hark.

Aspaldi utzi zioten Zestoako parrokoiko abesbatzan "Mesias Sarritan" abesteari. Iñaki Iriondoren ahots ederrak "bakarrekoa" abesteari uko egin zionetik. Guk ere azken bi urteetan ez dugu "Mesiasik" abestu etxean. Zuzendaria ordezkatzekoa jakin genuen, baita Amama Xoleren zorrotzotasuna ere... Baina organoaren soloa? Nola ordezkatu izebaren piribiribi pi? Aurten ere faltan botako zaitut tia.



LAU GURPILEN GAINEAN

Iritsi zaigu aurten ere urteroko zita, Zestoako herri aldizkariarekin dugun zita, hain zuzen ere. Zeinen azkar pasatzen den denbora, ezta? Nik oraindik gogoan dut azken zutabea idatzi nuenean Gazte Palestinarra zein abesti entzuten ari zen Tolosako karrketan. Azken aldian azkar hitza oso presente dago nire inguruan, urtea azkar doa, hilabetea ere bai, kafe ordua ere ziztu

bizian eta goizero-goizero autobidean arrapaladan aurreratzen nauen autoa ere bai.

Duela zortzi urte autoko gidabaimena ateratzeko irrikatan nintzen, urteak bete

eta berehalaxe atera nuen. Garai hartan, 18 urterekin, aitari edo amonari autoa kendu eta bertan ibiltzea izaten zen nire gustuko denbora-pasa.

Beti gustatu izan zait autoa gidatzearen kontu hori, aitonak zioen moduan "zuk kamioi bat ere gidatuko zenuke". Denbora autoak bezalaxe azkar doan honetan, konturatzen ari naiz autoarekiko beldurra areagotzen ari zaidala. Badira hiru hilabete lan berri batean hasia naizela eta ia egunero Tolosara joan behar dudala eta hortxe konturatu naiz errepede beldur pixka bat hartzen ari naizela, pixkanaka, geroz eta handiagoa.

Orain gutxi arte autoa asteburuetan bikotearengana joateko erabiltzen nuen edota amonari bisita egiteko, astean zehar, baina derrigortasunik gabe. Orain, ordea, beharrak hala eskatuta, egunerokotasunean ordu bat edo zerbait gehixeago igarotzen dut errepedean.

Duela egun batzuk, lanetik etxera bueltan, istripua izan zen eta kilometroetako ilarak sortu ziren, ni tartean, ilunpetan eta eurtan; zer gertatuko ote zen galdezka; "irratia piztuko dut albistek entzuteko" esanaz. Pixkanaka, aurreraka gindoazen momentuetan, nire burua martxan, "zein paretan izango ote zen?", "Euriagatik izango ote zen?", "Azkarregi joango zen autoa beharbada?"... Eta pixka bat aurrerago "Niri gertatzen bazait?", "Beharbada makalxeago ibiltzen hasi beharko nuke, auto honek ez dit batere segurtasunik ematen..." Mila dira nire burutik pasatzen diren ideiak, baina hau dena zergatik? 18 urterekin gidabaimena atera nuenean dena zen ederra eta dena zen "guaya", zer gertatzen da orain? Akaso bizitza bera azkarregi doa, eta, ondorioz, beldurra sentitzen hasiak ote gara?



amaia agirre

jagoba astiazaran

BERE EGUNEROKOAN
ONDO TXERTATUTA
DUEN NORBERE
BURUA, ETXEA ETA
INGURUA ZAINTEKO
MODU ANTOLATUA
JASO DU AIORA
URBIETAK *GEURE*
GORPUTZEAN ETA
ETXEAN BURUJABE
LIBURUAN. AURKEZTU
BERRI DU DURANGOKO
AZOKAN, ETA AITZAKIA
BALIATU DUGU BERE
IBILBIDEARI
ERREPASOA EMATEKO.

Belar mundu honekiko zure aurreneko oroitzapena zein da?

San Jose loreak jan eta horrelakoak denok egin izan ditugu, ezta? Horrez gain, gogoratzen dut eskola atze inguru horretan, zazpi bat urte genituela, nola landareak bildu, birrindu eta gure ustez edabeak egiten genituen. Adreilu zatiak txiki-txiki hauts egin eta Nivea kremarekin nahastuta, kolorete modura masailetan ematen genuela ere akordaten naiz.

Txikitatik izan dut animalia eta landareekin obsesioa. Kanean zerbait hartzen egotea baino, beti gustatu izan zait gehiago buelta bat ematea; horko zapaburuak edo hango zuhaitzak ikustea, eta behin amak, sendabelarren inguruko liburu bat oparitu zidan. Ordurako interes handia nuen sendabelarreki-ko. Handik aurrera oterra eta liburua hartuta joaten nintzen paseora. Orduan hasi nintzen lehen ikastaroetara joaten. Beti taldeko gazteena izaten nintzen; emakume jubilatatu mordoa, eta ni.

Sendabelarren inguruan etxetik jaso zenuen oinarririk?

Etxean baserriko konturen bat edo beste entzuten genuen, baina gutxi. Liburua idazten ari nintzela; zer den bizitza, jakin dut, nire birramona Maria (Egañazpi pandero-jolearen ama), oso jakituna zela belar kontuetan, Aizarnan. Orain, Aizarnako Egaña Goikoan bizi gara, lehen ere bizitzako beste etapa bate-



argazkia: Alain Martinez

an hemen bizitzen egon nintzen bolada batez. Kuriosoa da bizitzak zenbat aldiz ekarri nauen hona. Gure beheko baserriko Arangurenakoek teilatua aldatu dute eta egurra eskaini ziguten, eta harekin berriketan ari nintzela aipatu nion nola aitona Egañazpiren liburua atera zutela eta irakurri nuela beraien etxeko norbaiti nire birramonak titia eman ziola haurraren amak esnerik ez zuelako... Berak bazuen horren berri, anaia zaharrenari izan zela argitu zidan. Gero, sendabelar kontuak aipatu genituen, eta horren inguruan esan zidan Maria, Aizarnako "meikuba" zela, sendabelarrekin egindako erremedioekin etxer etxe ibiltzen zela, batez ere umeak sendatzen.

Sendabelarrekin zebilen emakumeaz "meikuba" esatea harri-garria egiten da, ezta?

Aititaren arreba Mertxerengana jo nuen eta hark gauza asko kontatu zizkidan. Arangurenakoa, titiarekin hasi zuena, gero ere lagundu omen zuen pneumoniarekin azkenetan zegoela. Beti gauez eta ezkutuan ibiltzen omen zen. Aizarnazabaleraino joaten omen zen argi kandelarekin umeen "txitxareak" eta tratatzen. Ume asko ahotik eta sudurretik batera "txitxareak" botatzen hasita ito egiten omen ziren. Garai haietan arriskutsua ere bazen. Medikuek ezer egin ezin eta norbaitek

rretako Lizentziatura ikasteaz gain, ikastaro asko eta herboristeria eta naturopatiako masterrak egin nituen. Ordurako etxean xaboiak eta kosmetika kontuak ere egiten nituen. Gero kanpora joan ginen, alaba jaio zen, eta berriro ere nolako bizitza edo etorkizuna nahi genuen planteatzen hasi nintzen.

Frantzian egon zineten, ezta? Han ere mundu honetan sakontzen jarraituko zenuten. Asko ikasi genuen. Sendabelarren ekoizpen ekologikoak, permakulturako baratza, distilazioak... Nekazari bizimodu oso polita dute; bakoitzak bere baratza, bere animaliak, komunitateko lan asko egiten dute elkarrekin... Gu egon garen etxe gehienetan dute etxean egindako marmelada edo ziropa. Oso ondo moldatu ginen, baina gauza asko tarteko, etxera itzultzea erabaki genuen. Bizitza nola planteatu erabaki behar genuen.

Baserrri bat erostea ez da erraza. Pandemia eta gero mundu guztiari mendira bizitzera joateko gogoia sartu zaio, gainera, eta oso zaila dago. Ni kalean gaixotu egiten naiz, ondoeza sortzen zait. Garbi geneukan Aizarnara nahi genuela joan eta hara jo genuen. Han hasi zen alaba eskolara eta han atera zen aukera gero.

Baserrri mundua ere beti izan duzu gustuko. Txikitant baserrian ordu asko egindakoa zara?

Ez, bi gurasoak baserriarrak ditut, baina baserrri bizitarik ez nuen egin txikitant. Etxetik ateratzeko modua izan nuenean Erdoiztako puntara joan nintzen eta handik ez naiz gehiegi jaitsi. Ez dakit kalean bizitzen, ez Zestean, ez Donostian ez eta Aizarnan ere. Nik behar dut etxetik irten eta bakarrik, mendian egotea. Aizarnan kalean bizitzea, kalea da niretzat, eta nik aparte nahi nuen. Orain, alabarekin, praktikoagoa da herritik gertuago egotea, baina hala ere mendian bizitzea ez nuke aldatuko erosotasun horregatik.

"NI KALEAN GAIXOTU EGITEN NAIZ, ONDOEZA SORTZEN ZAIT"



► **Urkome Saria ere jaso zenuten “Amalda biobotanika” proiektuarekin. Nola dago proiektua?**

Lursailaren faltan bere osotasunean egin ezinda. Asmoa zen terreno bat hartu eta sendabelar eta baratza ekologiko ekoizpena egitea. Orain proiektu horren moldaketarekin gabilta. Ikastaroak eskaintzen eta beste gauza batzuk lantzen. Etorkizunera begira bagabiltza gauzak egosten, baina ikusi egin behar.

Liburuari begira zer esango diguzu?

Mundu hau osotasunean ondo emateko organizazioa behar da. Eguneroko martxan, gainontzeko etxerako lanekin batera sartu behar dira gure produktuak egiteko lanak ere, bestela oso zaila da. Niri gure etxeko antolaketak ondo funtzionatzen dit eta hori da liburu honetan proposatzen dudana. Garaian garaiko lanak zein diren azaltzen du. Errezeta sinpleak dira, gauza konplikatuak behin egiten dira, baina egiten jarraitzea kostatzen da.

Urtaro bakoitzak sarrerara modukoa ere badu

Beharrezkoa iruditzen zitzaidan. Sarreretan urtaroarekin lotura duten erritual edo ohiturak jarri ditut. Askotan iruditzen zait ez dakigula zein garaitan bizi garen ere. Ez diogu begiratzen inguruari, ez gara konturatzen zein landare hasi diren, zein joan diren. Pena ematen dit ziklo horrekin batera ez joateak. Badirudi gizakia eta natura aparte bizi garela, bakoitza bere bitetik.

Urtaro bakoitzean lau ataletan banatuta daude errezetak; etxea goxatzekoak, geure gorputzerakoak, garbiketako produktuak eta sukaldeko lanak. Niretzat inportantea da errezetek funtzionatzea, orain artean erabili ditugun produktuak ondo ordezkatzeko, baina aldi berean jendeak etxean laborategirik ez behar izatea. Lortzeko errazak diren produktuak erabiltzea, Internetera jo gabe erosteko modukoak



“EZIN DIRELA EGIN
PENSATZEN DUGUN
GAUZA ASKO EGITEKO
GAI GARELA IKUSARAZI
NAHI DUT”

eta ez izatea garestiak: sukaldeko produktuetarako eta kontserbak egiteko, olioia eta azukrea, gorputzekoak egiteko, buztinak eta aukeran olio esentzialak, eta garbiketarako, sosa kaustikoa, bikarbonatoa, perkarbonatoa, azido zitrikoa eta binagrea. Ez dira osagai askoz gehiago behar dena egiteko.

Garai honetan, esate baterako, zer egiteko aprobetxatu beharko genuke?

Udazkenean energia barrura begira izaten da gehiago, etxean egiteko garaia izaten da eta barruko lanak egitekoa eta norberaren barruko lanak ere bai. Udazkenean udan baratzean hasitako produktuak antolatu behar izaten dira. Kontserbak egiteko garai polita da. Lan asko izaten da horretan; horregatik, garbiketako produktu sinpleak bakarrik egingo ditugu. Sendabelar usaintsu lehorrak ere prest egoten dira eta girotzaileak egiteko garai ona da. Negura begirako katarroak ere garai honetan hasten dira eta eukaliptoekin arnasketa erraztuko diguten ukenduak egin ditzakegu. Negura begira, berriz, barruko lanekin jarraituko dugu. Baratzean lan gutxiago dagoenez, urte guztirako behar ditugun kandela, intsentsu eta egiten denbora gehiago eskatzen duten garbigarriak egiteko aprobetxatuko dugu; olio erabiliarekin egindako xaboi kantitate handiak egiteko, esaterako. Gainera, xaboiak neguan egiteak badu onura interesgarri bat, xaboiak hilabeteko ontze prozesu bat behar izaten dute hezetasunik gabeko lekuan. Hemen askotan udan ere hezetasun handia izan da eta neguan etxe barruan sua pizten badugu edo berogailua jartzen badugu, giro lehorragoa izaten da eta oso ondo lehortzen dira. Katarroentzat xarabe eta gominola edo karameluak egiteko garaia ere bada.

Kolektiboan biltzearen garrantzia ere askotan azpimarratzen duzu, ezta?

Saiatzen naiz bai. Guk etxean egitea ondo dago, baina hau bizi filosofia ere bada. Emakume artean lan asko egiten dut, gehienetan Emakume Etxeetako jabekuntza eskoletan egiten dut lan, eta gainontzeko ikastaroetan ere gehien bat emakumeak etortzen dira. Urte batean kalkulatu nuen 100 ikasletik bat zela gizonezkoa kontu hauetan eta horrek erakusten digu oraindik ere zaintza kontuak noren esku dauden. Behar asko dago gure artean gauzak konpartitzeko. Hirietan eta askotan ikusten dira bakardade egoerak, tratu txarrak jasan dituztenak, edo inguru segurua ez duen jendea; eta ikastaro hauek azkenean terapia izaten bukatzen dute, eta hori oso interesgarria iruditzen zait.

Azkoitian, Abaltzisketan eta Arrasaten, esate baterako, ikastaroak ematen ibili naiz, eta han badaude talde komunitarioak eta elkartzen direnean igual egiten dituzte 140 litro xaboi.

Guk baserriko lanak, itxiturak, konponketak... ere taldean egiten ditugu. Geu ere asko ibili gara besteen etxeetan, pata jaso behar dela, teilatua konpondu, paretak bota... Aurrezten duzunaz gain, polita da ekarri lagunduta gauzak egitea, geure artean sarea edukitzea. Bestela, sistema kapitalista nazkagarri honetan, gutxieneko maila bat ez baduzu, izorratuta zaude.

an biziko da, baina gai garela etxe bat zerotik eraikitzeko, instalazio bat geuk egiteko, teilatua egiteko, baratzean haziak gorde eta berriro hortik elikagaiak ateratzeko, erosi lau gauza eta etxerako behar ditugun produktu guztiak egiteko... Ikus dezala hori guztia egiteko gai garela. Izan gaitzkeela geure buruaren jabe, eta komunitatea beharrezkoa dela bide horretan.

Ingurumena zaintzeko modu bat ere bada zuk planteatzen duzuna, ezta?

Niretzat oso kezkarria da zenbat plastiko erosi eta botatzen dugun egunero, baina ez hori bakarrik, zenbat KH7, Cillit Bang eta horrelako produktu fuertek botatzen ditugu egunero arraska zulotik behera? Nik ikastaroetan askotan galdetzen diet, zuek imajinatu, baserri batean bizi zaretela, eta harraskatik botatzen duzuen hori zuzenean zuen baratzera doala, botako zenituzkete? Ez, noski. Hirietan hori ikustea gehiago kostatzen da. Nik Erdoiztan bizitzen jarri nintzenez oso argi ikusi nuen hori. Garbiketako produktuak oso fuertek izaten dira eta osasun hormonaletako gaitz asko sortzen dituztela frogatuta dago.

Arraska garbitzeko zer behar duzu nahi baduzu bina-grearekin bakarrik garbitu dezakezunean? Usaina ez zaizula gustatzen? Bota olio esentzialak. Zenbat produktu erosten ditugu? eta asko oso garestiak. Gauza bakoitzerako produktu espezifiko bat dugu, gainera: kristalak, lurra, komuna, manpara, kanpaia... Merkatua da, industria eta kapitalismoa dira zirkulu horretan sartzen gaituztenak. Azkenean, dirua ematen ari zara, ez auzoko bati, baizik eta enpresa bati, gainera erraldoia den bati, eta gaixotzen ari zara, gero berriz farmaziara joateko eta zirkuluarekin jarraitzeko.

Liburuaren izenean "burujabe" hitza ere sartu duzu. Ezin direla egin pentsatzen dugun gauza asko egiteko gai garela ikusarazi nahi dut. Garai batean egiten zirenak eta orain bat-batean badirudi asmatzen ari garela gauzak. Antolatzea da, gauza sinpleak norberak egin eta gehiago kostatzen dena, taldean egitea.

Nire alabari erakutsi nahi diot, gero agian Bilbo zentroan biziko da, baina gai garela etxe bat zerotik eraikitzeko, instalazio bat geuk egiteko, teilatua egiteko, baratzean haziak gorde eta berriro hortik elikagaiak ateratzeko, erosi lau gauza eta etxerako behar ditugun produktu guztiak egiteko... Ikus dezala hori guztia egiteko gai garela. Izan gaitzkeela geure buruaren jabe, eta komunitatea beharrezkoa dela bide horretan.



danbo lin.eus



DURANGOKO AZOKAKO 59. EDIZIOAN ZESTOAR UGAR

Abenduaren 5etik 8a bitartean izan da Durangoko Azokaren 59. edizioa. Euskal Herriko musikari, aktore zein idazleen lanak izan dira bertan eta horien artean, Zestoako hainbat sortzailerena ere bai. Aiora Urbietak abenduaren 6an "Geure gorputzean eta etxean burujabe" liburua aurkeztu zuen. Abenduaren 7an, Pako Aristiren txanda izan zen. "Uztapide eta Xalbador. Bi adiskide mugaz gaindi" liburua inguruko mahai inguru egin zuen, besteak beste, Mikel Arregi, alkatea, eta Xole Aire Urepeleko auzapezaren laguntzarekin. Abenduaren 8an, berriz, Amancay Gaztañagak Martin Martina eta Sorginen Batzarra trilogiako bigarren lana aurkeztu zuen.

Musika kontuetara jota, Ezpalak taldeak, Plateruena aretoan, "Gatza" bere azken albuma aurkeztu zuen, abenduaren 7an. Rodeo taldekoak, Garikoitz Mendizabal eta Aitor Huergo ere bertan izan ziren beraien lanekin.

Nerea Mendizabalek postu propioa jarri zuen bere ibilbideko lan eta berrikuntzekin.



ANTXIETA

Bi hitzaldi eta erakusketak osatu dute aurtengo Antxieta Arkeologia Astea. Asier Gomez eta Joseba Riosen hitzaldietan goraino bete da Alondero aretoa. Biek ere Baioko aztarnategia izan dute mintzagai. Laborategietako azken emaitzak jaso bitartean aukitutako aztarnen adinari buruzko data zehatzik eman ezin badute ere, oso zaharrak izateko itxura dutela aurreratu dute hizlariek. Asier Gomezen Emanaldiaren amaieran Baion aukitutako hainbat aztarna ikusteko aukera izan zen.

Arkeologia Asteari amaiera emateko, abenduaren 15ean Antxieta erakusketak ikusteko aukera izan zen arkupetan eta herritar asko gerturatu zen jakinmina asetzera.



EUSKERAREN EGUNAREN HARIRA HAINBAT EKINTZA

Euskararen Eguren harira Arroako eskolako hurrek kalera atera zuten jai giroa. Gelan egindako lanekin paretak apaindu zituzten eta jarraian frotoian jolasak eta kantaldia izan ziren.

Herrigunean Ekain pailazoaren "Arlotea" ikuskizuna izan zen, guraso elkarteak antolatuta.

Euskara Foroak Euskaraldiarekin lotu zuen Euskararen Eguna eta udaletxeko balkoian Euskaraldiko irudiak zintzilikatu.



BAZKARI EDERRAREKIN EMAN ZITZAION JUBILATUEN ASTEARI AMAIERA

Ekintzaz betea izan dau aurtengo Gurutze Jubilatu eta Pentsiodunen astea ere. Bingoa eta karta jokoaz gain, gaztaina jana eta ibilalditxo ere egin dituzte. Abenduaren 1ean, Asteari amaiera ona emateko, ia ehun lagun elkartu ziren Gurutze tabernan. Bazkalondoren, aurten 85 urte betetzen dituzten elkarteko kideei oroigarria banatu zitzaion. Guztira hamar ziren baldintza hau betetzen zutenak eta hauetatik zazpi bertaratu ziren.



GURE TXOKOA ELKARTEAREN 75. URTEURRENA OSPATU ZUTEN ABENDUAREN 14AN

75 urte bete ditu Gure Txokoa elkarteak aurten eta horren harira hainbat ekintza antolatu dituzte ospakizunerako. Duela 25 urte bezalaxe, joaldunak izan ziren arratsaldean kaleetan zehar eta ondoren, mokadutxo egin zuten arkupean herriko txarangak girotuta. Urteurren festa borobil amaiatzeko, goizeko ordubiak arte luzatu zen bertso afari ederra izan zen Aitor Salegi eta Andoni Egañarekin.



"NATURA ZAINDU!" LEMAPEAN AGIROKO UMEEN IBILALDI NEURTUA

Abenduaren 15ean, Umeen ibilaldi neurtua izan zen Agiro Mendi Klubak antolatuta. Goizeko 9:30ean aterata 7,5 kilometroko ibilbidea egin zuten Akoa bailaran barrena. Aurten "Natura zaindu!" lemapean egin da ibilbidea gaztetxoek naturarekiko kontzientziarioa landu nahian. Ibilaldi amaieran, parte hartzaileek opari bana, salda eta txorixo pintxoak izan dituzte. Horrez gain, Antxietako Arkeologia Astearekin bat eginez, udaletxe azpian zegoen erakusketa ere ikusi dute. Agiroko kideek azpimarratu dutenez, datorren ikasturtean ere natura zaintzen jarraitzeko kontzientziario lan gehiago egingo dira.



GALTZADA-HARRIZKO KAL URTEZ URTE, LERRÖZ LERRÖ

**DUELA 20 URTE HAST ZIREN
ERDIKALEKO ETA FORU PLAZAKO
GALTZADA-HARRIA BERRITZEN,
ETA HORREK EMAN DIGU
AITZAKIA HISTORIA PIXKA BAT
EGITEKO, XVIII. MENDEAN HASI
ETA ORAIN ARTE, HERRI-LAN
AIPAGARRI ASKO EGIN DA
ZESTOAN, ETA, HORIEN ONDORIOZ,
GURE BIHOTZEAN ILTZATUTA
GENEUZKAN MAKINA BAT IRUDI,
FORMA, ELEMENTU PIKUTARA
BIDALI DIRA MODERNITATEAREN
ETA GAIZKI ULERTUTAKO
IRISGARRITASUNAREN
MESEDETAN. HOR GERATU DIRA,
ORDEA, ARGAZKIAK -HEMENGO
HAUEK BERE GARAIAN JONE
BERGARAK ATEREAK DIRA- ETA
HORIEI ESKER BERRIRO ERE
ANTZINAKO KALE ZATI HAIEK
OROITU DITZAKEGU.**

Gurea baino lurralde txiroagoetan bizi eta hona etorri den jendeak behin baino gehiagotan esan izan du atentzioa ematen diela zerak: hemengo kale eta errepide denak urbanizatuak egoteak, txukun-txukun, harlauzaz edo asfaltoz edo antzeko beste teknika batez, berdin dio. Ez da beti hala izan, ordea. Agiriek ez dute gauza garbirik esaten gai horietaz, baina, seguruenik, lehen saiakerak Ilustrazio garaiko higienizazio ikuspegitik egingo ziren. Joan Ignazio Errasti udal-eskribauak 1785ean Errege Akademiara bidali zuen txostenean, esate baterako, honela zioen: “Con calzadas curiosissimas y losas labradas a cordel por ambas ceras” (Galtzada bitxiekin eta, bi espaloietan, zuzen-zuzen landutako harlauzekin). Dirudienez, XX. mende hasierara arte kale nagusietara (Erdikalea eta Kaleokerra) mugatuko zen zoladura berezi hura, eta nahiko txukun egongo ziren kale horiek. Gainontzean, ordea, galtzada zeharo hondatuta zegoen, hartxintzar eta lur nahasketa bat, euria egiten zuenean lokatz-toki bikaina, eta zabor narraskeriak nonahi. Horren adibide da, esate baterako, Zestoan ospatzearen Lore Jokoen bezperatan (1898. urtea) Udalak agindu zuena: “Gurutze Santu kaleko galtzada arreta handiz garbitzea, Ariztondo etxetik Illarraga izkinaraino eta Atxaranguatik Gurutze muturreraino, pilatuta

ALEAK,

dagoen zaborra jasoz eta herritik kanpora gurdietan ateraz; eta lehenengo puntuan galtzada konpontzea eta bigarreanean galtzada berria egitea bertako harria aprobetxatuz; eta, azkenik, Illarraga etxearen eta Apategi etxearen artean eta horren eta Elizako sakristiaren artean utzitako hondakin pilak ere desagerraraztea". Panorama, ikusten denez, ez zen oso higienikoa.

Herriko kaleen zoladura jartze eta bazterrak txukuntze orokorra, agiriak erakusten dutenez, XIX. mende amaieran eta, batez ere, XX. aren hasieran nagusitu zen. Oso esanguratsua da 1902an Ramon Cortazar arkitektoak Zestoako beharren inguruan egin zuen txostenak dioena: "Hainbat eta oso garrantzitsuak dira konpondu beharreko arazoak, baina guztien artean garrantzitsuena higieneari eta saneamenduari eragiten diena da", hau da, lehendabizi ura etxeetara eramatea eta ondoren estolderia on bat. Beharrezko beste azpiegituren artean, asiloa, eskolak eta hiltegia nabarmentzen ditu Cortazarrek. Horrek guztiak, batez ere urak eta estolderiak, kale guztiak hankaz gora jartzea zekarren, eta kaleak berritu beharra ekarri zuen.

Gehienetan, lehenengo galtzada zaharra altxatu eta harrizko zoladura berria jarri zuten. Esate baterako, 1883-84. urtean *Calle Correo*-koa (orain Gesalaga), 1908an Gurutzeagatik Labekora arteko zatia, 1917an *Travesía* deituriko errepedekoa (Toribio Alzaga)... 1920ko hamarkadarako ur-hoditeria eta estolderia ia guztiz amaituta zeuden, eta kaleetako lauzadura txukuna. Hurrengo mende erdian Udalak ia mantentze-lanak bakarrik egin zituen.

1970eko hamarkadarekin hasi ziren berriro zoladura lanak: XVIII. mendean harlauza zabal-zabal bikainez egindako espaloiak desmuntatu egin ziren, eta hareharrizko lauza arrunt batzuk jarri zituzten. Lehenengo zaharrak lau haizetara zabaldu ziren: herriko zenbait eraikuntzatan aprobetxatu ziren (gure ustez Aokoako ermitan, besteak beste) baina ba omen dira partikularren esku geratutako makina bat harlauza ere.

Gaur egungo zoladura duela 30 urtetik hona egindakoa da. Historia pixka bat egite aldera, 1988an, Estanis Narbaiza bide ingeniariari enkargatu zitzaion herriguneko zoladura proiektua egitea. 1991n, berriz, Kemen enpresari. Hark idatzitako azpiegituren eta zoladuraren oinarrizko azterlana eman zuen ontzat Zestoako Udalak 1992an.

Lanen lehen fasea 1993an hasi zen, San Joan bidetik (gaur egun Gesalaga) Erdikale pareraino. 1999an ekin zitzaion bigarren faseari, hau da, Portale kalea bukatu (gaur egun Gesalaga) eta Kale Okerretik Zesareo Diaz kalera bitartekoari. Bide batez, Laranjadiko plaza eraberritu zen. Handik denbora batera, plazarainoko kale-zatia konpondu zen (Elizkalea).

Horrela egin ziren lanak, pixkanaka, eta, bukatzeko, 2004an ekin zitzaion Erdikaleko eta Foru plazako galtzada-harria berritzeari. Ohitu egin gara oraingo itxurara baina argazkiei erreparatuta, nostalgiak bereganatzen gaitu. Azpiegitura (ur hoditeria, estolderia, argindar kableak...), irisgarritasuna eta beste hainbat gauza asko hobetu baziren ere, nolabaiteko uniformetasun kutsua hartu zuten gure kaleak, eta eskuz egindako lanen nortasun berezi hori galdu egin zuen. Irakurleok zeuok epaitzea izango da onena.



KOSTALDERA HARRI BILA

Zestoako kaleetarako erabilitako harria askotan goraiatu izan dute harginak eta adituek. Bere ezaugarri bikainena da ez dela irristakorra, eta hori gauza garrantzitsua da batez ere aldapa lekuetan, esate baterako, Portaleko aldapan. Ez du edozein harri klasek balio lauzadura latz bat egiteko; kare-haitz arrunta, esaterako, denborarekin labainkorra bihurtzen da.

XX. mende hasieran, zoladura lanak lehiaketara ateratzeko paperetan, argi eta garbi jartzen zuten harriaren kontu hori: "Galtzada-harriek Zumaia eta Deba arteko itsasertzeko harrobietakoak izan behar dute, edo beste edozeinetakoak, baldin eta haiak bezain onak edo hobeak badira". Itsasertz horren ezaugarria, flysch deritzana, zera da, geruza gogorak (kareharria) eta bigunak (margak) tartekatzen direla eta geruzok bertikalki tolestatuta daudela. Egoera ez-horizontalki honek higadura errazten du eta geruzak ageri-agerian uzten ditu. Hori dela-eta, harginentzat askoz errazagoa zen galtzada-harriak lantzea. Geoparkearen zati bat, beraz, hementxe daukagu, Zestoako kaleetan.



HARRIAK BI PUSKA...

XX. mende hasieran, zoladurak enkantera ateratzerakoan, garbi adierazten ziren galtzada-harrien neurriak: luzean 18-30 zentimetro, zabalean 11-18 cm eta sakoneran 14-18 cm. Azken lauzatze-lanetan, ordea (1990ko hamarkada) galtzada-harri zahar haiek bitan ebaki ziren, sakonera 14-18 izan beharrean 7-9 zentimetroko harriak utziz. Beraz, ez zen harri faltarik izan. ¿Non ote dira sobratu zirenak? Ondare publikoa lau haizetara zabaldua berriro ere.



HONDARRA ETA MORTEROA


Lehenago lauzaduratan ez zen, gaur egun bezala, hormigoizko morteroa erabiltzen oinarrian eta harrien juntak hartzeko. Garai haietan hondarra erabiltzen zen nagusiki: "Galtzada-harria ondo jarri behar da ilaretan, behar den hondarra bota behar da, eta, ondo jartzeko, ondo finkatu behar da, junturak hondar onarekin ondo betez, zulorik eta desorekarik gera ez dadin".

Oinarrian hondarra erabiltzeak ez zion, agian, morteroak adinako gogortasuna emango zoladurari baina bere abantailak ere bazituen, gaur egun plazan ederki ikus dezakegun bezala: hondarrezko zoruarekin, ura iragazi egiten zen, eta, ondorioz ez zuen berarekin eramaten junturetako hondarra, baina hormigoiez egindakoa ura ez da iragazten eta gaineko hondar geruza dena berarekin garraiatzen du, juntura guztiak biluzik utzita.



BURUZURIAK

Duela 24 urte Erdikaleko eta Foru plazako galtzada-harria berritzen hasi zirenean, lan horiek eragina izan zuten zezen-plazako egituraren zenbait elementuetan, hala nola, buruzuriak deitzen diren harrietan. Ehunka urtetan erabili izan ziren harri haiek zezen-plazaren zati esanguratsua ziren. "Gerta liteke –antzeko beste plaza batzuetan gertatu den bezala– pixkanaka elementu berriak eta konbentzionalagoak ezartzen joateagatik zezen-plazaren xarma eta balio historikoa erabat galtzea", zioen herritar batek eta iritzi bera zuten beste askok ere, baina entzungor egin zuen Udalak. Zorionez, Iraeta etxearen aurrekoak errespetatu egin dira.





LERROAK

Lehengo zoladura zaharrak —eta oraingo berriak askoz gehiago— ematen duen lehen inpresioa erregularitasuna da. Zerikusia du horretarako harriak lerroan edo a cordel jarri izanak eta beren tamaina uniformeak. Horretan, zorrotzak ziren enkanteetako pleguak: “Galtzadharrietako bakoitza konpondu eta landu egin beharko da, oinarrian eta ertzetan aldarorik eta irtenik izan ez dezan. Pikoak konpondu eta landuta egon beharko dute, enkantean agerian egongo diren ereduaren arabera”. Neurriak ere, zehatz-mehatz ezartzen ziren: luzean 18-30 zentimetro, zabalean 11-18 cm eta sakoneran 14-18 cm. Hala ere, eskuz landuak izaki, erregularitasunaren gainetik aniztasuna nagusitzen zen.

ESTOLDERIA

Herriko estolderia oso garrantzitsutzat jo zen XX. mende hasieran: "Ez dadila egon etxerik herrigunean hodi biltzaileren batera bere hustubidea ez duenik. Hodi biltzaile horiek etxeetako urentzat ez ezik, euri-urentzat edo bide publikoak ureztatzerakoan erabilitako urentzat ere balio behar dute", zioen Ramon Cortazarrek Zestoako Udalari egindako txostenak. Estolderia lan horiek eragin nabarmena izan zuten herriko zoladuran, eta horren erakusgarri da irudia. Kaleko urak husteko egitura sinplea, bi zulo txiki, nahiko handi ur dezente irensteko, nahiko txiki zaborrak eta adaxkentzako.



ESTETIKA ZATIA

Hainbat txokotan, konturatu ere egin gabe pasatzen diren interesgune bikainak daude. Hemengo honetan, zoladurak berea duen zuzentasuna (harriak lerro horizontaletan edo bertikaletan) kurba batekin bateratu behar da, efektu sinple eta dotore hori sortuz.



Fernando arzallus
argazkiak: jone bergara

IRAGOTIA



Etxebizitzan egoera larria kontuan edukita, garbi daukat ez nukela etxebizitza hutsik edukiko. Zestoan, adibidez, alkilererako aukerarik ia ez dago, egotekotan gehiegizko prezioan. Iruitzen zait etxe hutsen jabeek behartuta egon beharko luketela arrazoizko prezioan alkilatzer.

Joana Iruretagoiena
24 urte



Bi aldeak ikusten ditut. Ez da egoera erraza. Semea alkilerreko etxe bila dabil Donostian eta oso zaila dago. Baina gertuan eza gutzen dut pertsona bati laguntzeagatik bere etxea alokairuan jarri eta orain okupazio arazo batekin aurkitzen dena ere... Ez dakit zer egingo nuken.

Lurdes Garcia
60 urte



Gaur uste dut badaudela garantiak alokatzeko eta egin beharrekoa iruditzen zait eta bultzatu beharrekoa eta publikoki gutxi bultzatzen dena. Langilea naiz eta soldata ona daukat, baina hala ere ezin dut etxerik alokatu, ez dagoe-lako alokagai eta herrian ehundaka etxe huts baino gehiago daude. Uste dut neurriak hartu beharko liratekeela.

Ibon Telleria
43 urte



Gurasoena zena duela 30 urtetatik dago alokairuan eta oraintxe ama hil da eta etxe hori hutsik eduki beharrean saltzea pentsatu dugu. Zestoako egoera ikusita, uste dut ezin dela etxerik hutsik eduki.

Andoni Elosua
48 urte

ZESTOAKO ETXEBIZITZA-MERKATUAREN EGUNGO EGOERA KONTUAN HARTUTA, BIGARREN ETXE BAT IZANGO BAZENU ALOKATUKO ZENUKE?



(Erantzuleak guztira: 25)



- Bai
- Baldin eta nori
- Etxebide edo antzeko programa baten bitartez bakarrik
- Ez



Iragarkien taulak geroz eta narrasago daude. Kartelak aurretik eta atzetik, barrutik eta kanpotik...



Kiroldegiko aterpean eserlekuak jarri dituzte.



Harzubia hiribidea, 51 - AZPEITIA 943 815 705 - 943 150 063

@erniosukaldeak

MGS
Mutua General de Seguros

JAVIER ALBERDI
Aseguru agente eskusiboa

Gesalaga, 18 behea · 20740 Zestoa
T/ 943 89 71 01 · jalberdi@mgs.es

ESKOLA DIGITALEN ZERBITZUA

DANBOLIN.EUS ATARIAN

ZURE PUBLIZITATEA

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO:
info@danbolin.eus

FEREGI
BERRIKUNTZAK

ELEKTRIZITATEA · ITURGINTZA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
AEROTERMIA · GASA
BEROKUNTZA

Jagoba Otaegi 695 721 015 Isidro Fernandez 690 108 996 Joan Fernandez 667 537 892

Taxi Zestoa

9 Eserleku
Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906

Surya Paz Marticorena

Osteopatia - Kirol masajea

605 765 140 Portale kalea 1, Behea B · 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)

ZESTOAKO SAN TUAN FUNDAZIOA
1919-2019

Bidezarra, 5 20740 Zestoa 943 147 019
e-posta: zestoakosanjuan@gmail.com
www.zestoakosanjuan.blogspot.com

Gesalaga kalea 20
Zestoa 20740

MIZU
Hortz Klinika

mizuclicinidental@gmail.com
ZURINE ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 797
IDOIA ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 868

Telf.: 943 14 78 28

Fisioterapia
Osteopatia

eskua
Therapy Group

943 29 08 99

Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa

GISASOLA
EGOITZA - RESIDENCIA

Toribio Altzaga 6 - Zestoa
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com

ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak

ELORZA
janaridenda
943 147 660

ARRAINDEGIA
KONTXI
ZESTOA 943 148 247
AZPEITIA 943 811 946

miantxa
943 147 015



unide
egunero janariak
943 558 005

UZKUDUN
harategia
Erdikalea, 5
Tel. 943 147 023
ZESTOA

Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110
mairl
LOTERIA
ESTANKOA

LOTXOLO
Tel. 943 147 133

Zbitt
Tif. 943 148 010

Etixerako osagarriak

ONK
943 147 081-647 683 643

UGARTE
burdindegia s.l.
943 147 154

Arropa eta oinetakoak

IRAOLA
ZAPATEGIA
617 269 408

lili 943 148 061

Edertasuna eta ongizatea

beatriz izeta
943 148 322

KERALA
ongizate txokoa
679 885 173

S
ESTILISTAK
680 802 777

ZESTOA
ZURETZAT

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



ZESTOAKO UDALA

PUZBLA

abendua

19 osteguna

18:00 Ertxiña
Musika eskolako
Gabonetako emanaldia
udaletxe azpian.

20 ostirala

10:30. Arroako
eskolatik kalejiran

plazara. Ondoren, Olentzero eta Mari Domingiri ongi-etorria. Aizarna eta herriguneko eskoletara ere egingo du bisita Olentzero.

21 larunbata

"Bizitza osoko zigorrak ez!" Iemapean Antton Herrira mariskada zozketa berezia, Erdikalean, abenduaren 21etik 26ra.

24 asteartea

Arroabeen: 9:00. Gabon eskea baserri eta auzoetan, plazatik aterata. Iraetan: 10:30ean Olaizola eta Uria kalean eta Sabea kalean abestuko dute. Arroagoian: 12:00etan Matraka parera iritsiko da Olentzero. Herrigunean: 13:00etan banda eta Gabon Abesbatzaren kontzertua. 17:00etan aterako da abesbatza kantuan San Juan egoitza. 17:30 inguruan Mari Domingi eta Olentzero Lauiturrieta ingurura gerturatuko dira. Gabon kantak abestuko dira plazara bidean.

25 asteazkena

18:00. Mus txapelketa (10 euro bikoteko) eta Bingoa, Gaztetxean.

26 asteartea

Zoroperi eguna. 10:00. Idiakaitzen diana. XXXIII. Barazki eta fruta lehiaketa. Urolako XXV. Ezti lehiaketa. XXIV. Zestoako Sagardo lehiaketa. Horiez gain, Segurako talogileak, herriko eta kanpoko artisauak eta salmenta-postuak. 11:00. Trikitilariak. 12:15. Itxaropena dantza taldeko gaztetxoak eta helduak plazan dantzan (herritar guztientzat irekia). 12:45. Barazki eta Fruta, Ezti, eta Sagardo lehiaketatako sari banaketak. Ondoren, Sagardoa dastatzea, plazan. 14:30. Baba jana Gaztetxean. 17:15 Plazatik denok frontoira. 18:00. Zapotxin pailazoaren "Esan, galtzerdi maitea!" ikuskizuna. Ondoren, Herri kirol eta pilota jaialdia, Abantzu Pilota Klubak antolatuta. Herri kirolak (harri-jasotzea; lokotx-biltzea eta karga eramatea) hiru talderen artean: Aizarna, Akoa eta Zestoa. Pilota: Txapei III – Apezetxea / Sasiain – Aizpuru. 19:00. Bertso-poteoa Erniarraitz taldeak antolatuta: Aitor Sarriegi eta Jon Gurrutxaga. 19:30. Fan&GO erromeri taldea, udaletxeko arkupetan, afalordura arte. 22:30. Fan&GO.

27 ostirala

Urteko azken ostirala
Zestoako Sarek deituta.
Elkarretaratzea Euskal preso,
iheslari eta deportatuen alde,
19:30ean plazan.

28 larunbata

18:00. "Kantu berri bat
gara" Jon Maiaren kontzertua,
kiroldegian. Sarrerak Udal
bulegoan salgai eta online,
musikaze.net/bidean.

29 igandea

10:45ean Arroabeko
plazan elkartu eta Zestoako
Adinekoen egoitzetara bisita.
17:00tan Paperezko Etxeak
Tailerra Aran Santamariaren
eskutik Arroako Elkargunear.

31 asteartea

San Silbestre lasterketa.
17:00etan hamar urtera arteko
haurren txanda. Plazan hasi eta
plazan amaitu. Ondoren, 11 eta 15
urte bitarteko gazteek 1.000
metro egingo dituzte. 16 urte
gorakoek 3.000 metroko ibilbidea.
Parte hartzeko, egunean bertan
eman beharko da izena,
16:00etatik 16:45era bitartean,
plazan. Irabazle eta
partaideentzako opariak
zozkatuko dira.

URTARRILA

01 asteazkena

Agiroko irteera Erlora.
9ak aldera Gurutzetik irteera.
10:30ak aldera gailurrean

02 osteguna

Monologoak gaztetxean
Beñat Iturbe, Aiora Enparantza
eta Manex Astigarragarekin.

05 igandea

Erre Magoen etorrera.
18:10etan Arroabeko Olaeta
kaleko autobus geltokian.
(Urtarrilaren 4 eta 5en postontzia
eliza aurrean). 18:30ean Akoatik
behera Zestoara iritsiko dira.

08 asteazkena

18:30, Alonderon:
"Elikadura sistema osasunaren
begiradatik" hitzaldia.

10 ostirala

Olentzerotako afaria
Arroabeen. 20:00etan umeak eta
21:00etan gazte eta helduak.

SANTAINESAK IRAETAN

18 larunbata

16:00 Txupinazoa. 16:00 Puzgarriak. 16:30
Haur jaio berriei ongi etorria. 17:00 Iraetako trena
martxan. 17:30 Txokolatada.

19 igandea

11:55 "Vamos al frontón". 12:00 Gaztetxo
pilota partidak. 12:30 Iraetako pilota txapelketako
finala. 17:30 Urrezko aizkora - Errota Harria.

21 asteartea

SANTA INES EGUNA. 11:00 Santa Ines
eguneko meza. 14:00 Gure ordeko bazkide bazkaria.

24 ostirala

22:30 XXXIV. Mus txapelketa Bekoetxen.
(Izen ematea 22:00tatik aurrera).

25 larunbata

12:00 Itxaropena dantza taldearen
emanaldia. 13:00 Pintxo lehiaketa Gure Ordeka
elkartean. 14:00 Pintxo bazkaria Gure Ordeka
elkartean. 19:30 Triki-poteoa, frontoitik hasita Manex
eta Erkizirekin. 21:00 Afari herrikoia, garagardo
afaria-Saltxitxak + Txerri kostilla. Postrea.
Garagardoa nahi adina. 00:00 Laket taldearekin
erromeria.

GAZTELEKUA

ABENDUA:

20 OSTIRALA: Barbantxo Arroabeen.

22 IGANDEA: Epelian.

23 ASTELEHENA: 17:00etatik aurrera, Gabonetako
apaingarrien tailerra eta txokolatada Gaztetxean,
HH4, HH5 eta LHko haurrei zuzenduta. Zestoako Gazte
Asanbladak antolatuta.

27 OSTIRALA: Kandela tailerra, Aiora Urbietarekin,
Alonderon, Ekain Guraso Elkartek antolatuta, 1 eta 2.
zikloko haurrei zuzenduta. Ordu erdiko lau txanda
izango dira aukeran: 17:00etan, 17:30ean, 18:00etan
eta 18:30ean.* 16:00etan, Master chef, Gaztelekuan,
DBHko gaztetxoentzat.

30 ASTELEHENA: Salting Iruñeara irtera 3. zikloa eta
DBHkoentzat. Irteera 12:00etan izango da Gurutzean
eta itzulera 18:00etan, Gurutzean. Prezioa: 15€
(Zestean erroldatutako dirulaguntza onuradunek doan
izango dute).

URTARRILA

02 OSTEGUNA: 16:00etan, Master chef. 3.

ziklokoentzat, Gaztelekuan! * Puzzle tailerra. HHko
haurrentzat, Alonderon. 45 min inguruko tailerra,
16:30-18:00 bitartean egiteko aukera. HH2 eta HH3ko
haurrak guraso batek lagunduta joan beharko dute.
Ekain Guraso Elkartek antolatuta.

02 eta 03, OSTEGUN-OSTIRALA: Argazki tailerra, 1-
2. zikloko haurrentzat, Alonderon. Bi saiotako tailerra
izango da (18:00-19:00 bitartean egiteko aukera) eta
urtarrilaren 3ko saioa 60 minutu inguruko izango da
(16:30-18:30 bitartean egiteko aukera). Ekain Guraso
Elkartek antolatuta.

03 OSTIRALA: 16:00, Jolas librea DBHkoentzat,
Gaztelekuan.

Aurrez izena emateko
gaztelekuko
WhatsApp zenbakia:
688 684 029

Zorionak
eta
urte berri
on!



erreabilitazioak

RENOVALAN

RENOVALAN ZESTOA S.L.

943 443 001 renovalan.com

·Eraikuntza eta obra zibila.
·Portalen berritze eta igogailuen ezarpena.
·Lokal komertzialen erreformak.

·Eraikinen birgaitze energetikoa.
·Eraikinen mantentze eta konponketa lanak.
·Fatxada bentilatua eta SATE.